



ELIZA KATOLIKOETAN KULTU PUBLIKOA OSPATZEKO KONTUAN IZAN BEHARREKO ARRETA-NEURRIAK, PANDEMIA GARAIAN MURRIZTE-NEURRIAK ARINDU BITARTEAN

Koronabirus delakoak hedatzen jarraitzen du Espainian. Gaitza ez kutsatzen saiatzea denen erantzukizun larria denez, honako xedapen hauek proposatzen ditugu, Elizbarruti bakoitzak zuhurtasunik handienaz ezarri ditzan. Etengabe ebaluatu beharko da, jarduera balioztatzeko eta behar izango den egoeretan aldaketak egiteko, une bakoitzean osasun-agintariek hartuko dituzten erabakiak kontuan izanik.

1. Ezartzeko faseak

0 Fasean: Oraingo egoeran jarraitu. Ospakizunak herririk gabe egin. Zerbitzu erlijiosoa norbanakoari eskaini, ahaideren bat galdu duenarentzat arreta berezia izanez. Elizbarrutietan eta parroketan hurrengo faserako prestatu.

1 Fasean: Bil daitezke fededunak elizan, baina ez kopuru handian, eserlekuen herena baino gehiago erabili gabe. Egunero eta igandero ospa daiteke eukaristia. Arreta berezia izan familiei beren dolu-aldian lagun egiteko.

2. Fasean: Berrekin ohiko zerbitzuei eta pastorgintzako taldeen ekintzei, antolaketa- eta osasun-irizpideak –aforoaren erdia, garbiketa, tartea uztea– eta ondoren aipatuko diren neurriak kontuan izanik.

3 Fasean: Ohiko jarduera pastoralera eramanez, beharrezko neurriak kontuan izanik sendabideren bat izan arte.

2. Xedapen orokorrak

- a) Egoera honen aurrean, igandean meza entzun behararen dispensa luzatzen dugu, Jainkoaren Hitza irakurtzea eta otoitza etxean egitera gonbidatuz eta, elizara joan ezin denak komunikabideez baliatzera eukaristia jarraitzeko. Adineko pertsoneri, gaixo daudeneri edota arrisku-egoeran daudeneri eskatzen diegu pentsatzeko egokiago izango dutela etxetik ez ateratzea.
- b) Elizetan gehiengo eserleku-kopuru edo aforoa lehen fasea 1/3koa (heren batekoa) izango da eta bigarren fasean 1/2koa (erdikoa). Segurtasun-tartea ere utzi beharko da pertsonen artean.
- c) Igandeetako eukaristietan, behar izango eta ahal izango litzakeen tokietan, ugaltu daiteke meza-kopurua eliztar gehien bildu ohi den orduetan, eliza han betea gerta ez dadin.
- d) Eliztar guztiek musukoa, maskarilla, erabiltzea gomendatzen da.
- e) Ur bedeinkatu ontziak hutsik egongo dira.
- f) Elizako ateak irekiak mantendu behar dira ospakizunetara sartzean nahiz ateratzean, inork ezer ukitu beharrik izan ez dezan.

3. Ospakizunera sartzean

- a) Elizako ateen irekitzea eta ixtea antolatu, pertsona arduradunak jarritz, baita eliztarrak elizan egoki kokatzea ere eta, orobat, jaunartzera hurbiltzea eta elizatik ateratzea.
- b) Elizan sartzean eta handik ateratzean, gel hidroalkoholikoa edota desinfektatzeko beste zerbaite eskaini.

4. Liturgia ospatzean kontuan izatekoak

- a) Abesbatza edo abeslari-korurik ez dadila izan. Abeslari bakarra edota bakarren batzuk eta musika-tresnaren bat. Ez da izango abesti-orririk izango, ezta irakurgai-orririk ezta inolako beste gauzarik nahiz paperik ere.
- b) Diru biltzeko poltsa ez da eskaintzakoan pasako. Mezatik ateratzean jarriko da, segurtasun-neurri seinalatuak kontuan izanik.
- c) Kaliza, patena eta kopoiak “paliak” estaliak egongo dira eukaristi otoitza egin bitartean
- d) Apaiz meza-emaileak eskuak desinfektatuak ditu eukaristi otoitza hastean; Jauna emateko zerbitzariak banatzen hasi aurretik.
- e) Bake-agurra, nahierazkoa delarik, elkar ez ukitzeko eran egin daiteke.
- f) Jaunartzean banaka izan ohi den elkarrizketa (“Kristoren Gorputza”. “Amen”) denek batera egingo dute, “Jauna, ni ez naiz inor...” erantzun ondoren. Eukaristia isilik banatuko da.
- g) Apaiza adin handikoa baldin bada, eukaristia banatzeko ezohiko zerbitzariak izan beharko dira Jauna emateko.

5. Ospakizunetik ateratzean

- a) Elizatik ateratzea era ordenatuak egin, atean pertsonak ez pilatzeko eran.
- b) Etengabe desinfektatu eliza, aulkiak, ontzi liturgikoak, eta abar

6. Beste ospakizun batzuetan

- a) **Adiskidetzeko Sakramentua ospatzean eta eliztarren aitortza entzutean:** neurri orokorrean gainera, toki zabala beharko da, tarte soziala mantentzeko eta isilpekotasuna segurtatzeko. Eliztarrak eta aitor-entzuleak biek soinean beharko dute musukoa. Bukatzean, eskuak eta gauzen gainaldea garbitzea gomenatzen da.
- b) **Bataioa ospatzean:** Ohikune laburra erabili. Bataio-ura isurtzean, ura ez dadila itzuli hartu den ontzira, bataiogaien artean inolako kontakturik izan ez dadin. Gantzetak egiteko kotoi-puska edota txotx kotoiduna erabil daiteke, hori behin bakarrik erabiliz eta, ospakizuna bukatzean, horiek sutan errez.
- c) **Sendotza ematean:** Gantzetak egiteko kotoi-puska edota txotx kotoiduna erabil daiteke, bataiorako esan den bezala. Saiatu eskuak garbitzen kontaktu bakoitzaren artean, sendogai bat baino gehiago denean.
- d) **Ezkontza ospatzean:** Eratzunak, esku-erakutsiak eta abar ezkongaiak beste inork ez ditzala ukitu. Ezkonberriek eta testiguak sinadurak egitean, utzi beharrezkoa den tarte, baita dokumentazioa ematerakoan ere.

- e) **Gaixoen Oliadura ematean:** Ohikune laburra erabili. Olio santuak ematean, kotoi-puska edota txotx kotoiduna erabil daiteke, lehen ere esan den bezala. Adin handiko apaizek edota gaixo daudenek ez liekete sakramentu hau eman behar koronabirusak kutsaturik dauden pertsoneri. Beti ere, izan kontuak osasun-agintariek emandako babes-aholkuak..
- f) **Hileta-mezetan:** Hileta-meza eta –elizkizunetan, igandeko mezatan kontuan izateko irizpide berak izango dira. Une samin horietan zail izanik ere, esan behin eta berriz elkar besarkatzeak eta pertsonen artean kontaktu diren zeinuak ekiditeko eta pertsonen artean segurtasun tartea zaintzeko.

7. Elizetara bisitak otoitzerako eta Jauna gurtzeko

- a) Arau orokorrei jarraitu, multzorik gerta ez dadin. Seinalatu otoitzerako eta gurtzarako tokiak.
- b) Deseskaladako lehenengo eta bigarren faseetan ez utzi ikustaldi turistikorik egiten.

8. Parrokiako lokalak prestakuntzarako nahiz bileratarako erabiltzean

- a) Bigarren fasean, jarraitu parroketako geletan ere Osasun Ministerioak bilera kulturaletako emandako arauak, hau da, heren bat biltzea, aforoa 50 lagunekoa denean, segurtasun tartea utziz eta musukoak erabiliz.
- b) Hirugarren fasean, erdiak sar daitezke ohiko aforoa 50 lagunekoa den tokietan eta heren bat ohiko aforoa 80 lagunekoa denean, beti bezala tarteak errespetatuz eta musukoak erabiliz.

9. Neurri hauei ekiteko proposamena

Hartutako oharren arabera, neurri hauek maiatzaren 11az geroztik hasiko dira ezartzen; horrela, beharrezko eskarmentua izan ahal izango dugu maiatzaren 17an igandeko ospakizunak egiteko.